

MULTIMEDIA-KOMUNIKAZIORAKO DISEINU GRAFIKO¹

Irakaskuntza gida



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Razetaritza II Saila

¹ Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 4.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es_ES/ helbidean.

1. Helburuak

Ikastaro honekin ikasleak infografiak sortzeko oinarrizko kontzeptuak bereganatu ahal izango ditu. Egitarauaren lehen atalean jarduera hau burutzeko beharrezkoak diren oinarrizko ezagutzak finkatuko dira. Horretarako, irudiaren teoria orokorrek erabilitako kontzeptuez gain, diseinu grafikoaren kazeta ikuspegia landuko da, idatzizko zein irudizko ikuspegitik.

Bigarren atalean, edukien definizioaz eta zehazkizunez gain, infografiaren funtzio eta erabilera ohikoenak aztertuko dira. Irizpide semiotiko eta grafikoak erabiliaz, komunikabideen mezu grafikoak eta komunikazio beharrak aztertuko dira, eta baita ere kazetaritza-infografiak garatu dituen alor bereziak.

Hirugarren atalean, informazio teknologia berrienekin lotura egingo da, eta oinarrizkoa infografiak egin ahal izateko tresna eta programa informatikoak erabiliko dira.

2. Gaitasunak

GE1. Kazetaritzan erabiltzen diren infografia mota ezberdinak ezagutu eta haiek dituzten oinarrizko elementu grafikoak identifikatzea eta ezartzea.

GE2. Hedabide tradizionaletara eta euskarri berrietara zuzenduta dauden infografiak ezagutu, eta hauen ekoizpenean erabiltzen diren diseinu grafikorako tresna informatikoak erabiltzea.

GE3. Kazeta-infografia ezberdinak ekoiztu, kazeta produktu bat sortzen laguntzen duten lan tresnak modu egokian erabiliaz.

3. Aurrebaldintzak

Kazetaritza eta diseinu grafiko terminoen oinarrizko ezagutza. Halaber, atal praktikoa burutzeko software libreko programak eta linean dauden doaneko diseinu aplikazioak erabili beharko dira.

4. Deskribapena

Azken urteotan diseinu grafikoaren eta infografiaren presentzia komunikabideetan modu nabarmenean indartu da, informazio konplexua modu sintetiko eta eraginkorrean adierazteko duten gaitasunagatik.



Eguneroko kazeta-jardunean testuek eta argazkiek gertaera konplexuak eta datu korapilatsuak irudikatzeko izan ditzaketen mugak, infografikoek arazorik gabe gainditzen dituzte.

Testuinguru honetan, eskaintzen diren ikasmaterialen bitartez ikastaro honetan ikasleak kazetaritza-infografiak ezagutu eta sortu ahal izango ditu, ikaskuntza autonomoko metodologiaren bitartez.

5. Gai-zerrenda

1. Kazetaritza, diseinu grafikoa eta infografia

- 1.1. Definizioa
- 1.2. Historia laburra

2. Infografiaren ezaugarriak

- 2.1. Infografiko motak
 - 2.1.1. Estatistika-grafikoak
 - 2.1.2. Mapak, krokisak, planoak eta kokatzaileak
 - 2.1.3. Mapa estatistikoak
 - 2.1.4. Taulak
 - 2.1.5. Diagramak
 - 2.1.6. Organigramak
 - 2.1.7. Multigrafikoak
 - 2.1.8. Eta ilustrazioak?
- 2.2. Infografikoen elementuak
 - 2.2.1. Titulua
 - 2.2.2. Irakurketa-ordena
 - 2.2.3. Osagai grafiko nagusia
 - 2.2.4. Sarea
 - 2.2.5. Iturria eta kredituak

3. Multimedia-infografikoak

- 3.1. Ikus-entzunezko komunikabideetako infografikoak
 - 3.1.1. Norazko bakarreko irakurketa
 - 3.1.2. Iraupenagatiko menpekotasuna
 - 3.1.3. Etengabeko partzialtasuna

3.2. Infografikoak Interneten

3.3. Grafiko interaktiboak

- 3.3.1. Noranzko anitzekoak
- 3.3.2. Denbora faktoretik independentea
- 3.3.3. Osotasun-ikuspegia edo lehen irakurketa globalaren aukera

6. Metodologia

OCW ikaskuntza autonomora bideratuta dago.

Eduki teorikoei dagokionean, ikasleak eskura dituen materialekin ikasi ahal izango du. Horrez gain, hainbat esteka ere eskaintzen dira bibliografia osagarriarekin, oinarrizko edukietatik harago joateko aukera izan dezan. Autoebaluaziorako test batek oinarrizko kontzeptuak barneratu dituen jakiten lagunduko dio, ikasgaiko ezagupen orokorreari buruzko galdera sorta batekin.

Arlo praktikoan, ikasleak bi ariketa egin beharko ditu. Lehengoan, emandako informazioan oinarrituta infografiko bat sortu beharko du *GIMP* programa eta *Easel.ly* webgunea erabiliaz. Bigarrenean, infografiko hori modu dinamikoan aurkeztu beharko du *Prezi* plataformaren bitartez.

7. Kronograma

Jarduera	Zeregina	Orduak
1. Ikasteko materialak	Materialen irakurketa	4
	Bibliografia eta material osagarriaren kontsulta	4
	Gogoetarako galderak	1
	Autoebaluazio testa	1
2. Praktiak - Infografiko bat nola egin	Infografiko estatikoa	
	- Informazioa landu	2
	- Mapa sortu (GIMP)	2
	- Infografikoa egin (Easel.ly)	6
	Infografiko dinamikoa	
	- Informazioa landu	2
	- Narrazioa grabatu	2
- Mapa Sortu (Prezi)	6	
GUZTIRA		30

